

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

4/2026 Foru Araua, otsailaren 11koa, Francisco Franco Bahamonderi eta Emilio Mola Vidali emandako ohorezko tituluak errebokatze

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2026ko otsailaren 11ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "4/2026 Foru Araua, otsailaren 11koa, Francisco Franco Bahamonderi eta Emilio Mola Vidali emandako ohorezko tituluak errebokatze," aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 11

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

4/2026 Foru Araua, Otsailaren 11koa, Francisco Franco Bahamonderi eta Emilio Mola Vidali emandako ohorezko tituluak errebokatze

ZIOEN AZALPENA

I

Aurrekari historikoei dagokienez, 1936ko azaroaren 12tik dator sari hauen afera. Orduan, de facto eraturako Diputazio Probintzialak, zeinak ez baitzeukan foru-erakunde zilegiek zeukaten zilegitasuna, erabaki zuen 'Probintziaren Aita' titulua ematea Francisco Franco Bahamonderi eta Emilio Mola Vidali. Aitormen hori egikaritzea liskarrak bukatzearen mende geratu zen, eta Francisco Francoren kasuan, 1939ko apirilaren 5ean berretsi egin zen.

Azkenik, prozesua 1944ko apirilaren 28an burutu zen. Orduan, aldarrikapen formala egin zen, Lurraldeko erakunde-egitura historikoa usurpatu zuen 'Junta' deituriko batean. Ekitaldi horretan, batzar partikular zilegia ordeztu zuen Diputazio Probintzialak, kuadrilletako hirurogeita hamazazpi alkaterekin batera, Francisco Francori ohorezko diputatu nagusi titulua ematea formalizatu zuen. Hala, salbuespen-erregimen baten pean eta foru-antolamendu tradizionalarekin argi eta garbi hautsita emandako aitormen hori finkatu egin zen.

II

Foru arau honen bitartez indargabetzen diren ohorezko kargu eta sarien izaerari dagokionez, Ramón Ortiz de Záratek bere Compendio Foral lanean adierazi zuenez, "Probintziaren Aita" eta "Ohorezko Diputatu Nagusia" figurak Arabako aintzatespen zibil gorenak dira, eta askatasunak defendatzeko eta gordetzeko jardun nabarmena egin dutenei baino ez zaizkie eman historian zehar.

Aipaturiko lanak ezartzen duenez, probintziaren aita dira diputatu nagusi izandako guztiak, bai eta, probintziari emandako zerbitzu bereziengatik, sari hori batzar nagusiaren erabaki bidez lortzen dutenak. Titulu hori bizi osorako da, eta tituludunak maila berekoak dira denak. Eserlekuak diputatuaren ondoan dituzte, antzinatasunaren arabera jarriak. Gainera, probintziaren aiten funtzioak ezartzen dira: aholkua eta iritzia ematea diputatu nagusiak edo batzar partikularrak edo nagusiak gai larriei buruz galdetzen dietenean, bai eta aipatu hiru aginteei ematen dizkieten betekizunak eta enkarguak bideratzea ere.

Lan berean, erreferentzia egiten zaie ohorezko diputatu nagusiei. Titulu horretaz adierazten da ezen Arabako probintziari balio handiko zerbitzuak ematen dizkieten gizonei batzar nagusiak ohorezko diputatu nagusiaren titulua ematen diela, aitormen eta esker onaren erakusgarri. Aitormen hori ohorezkoa da soil-soilik, eta ez dio hala izendatua izan denari inolako eskumenik ematen jarduera ofizialetan esku hartzeko. Hala eta guztiz ere, probintziaren aita ere izendatzea dakar aitormen horrek, baldin eta jasotzen duenak lehendik ez badauka titulu hori.

De facto sortutako organismoak, 1936an eta 1944an foru-sari horiek erabiliz, tradizioaren jabetze sinboliko bat egiten ahalegindu ziren, hain zuzen ere, modu horretan, errealtatean itunaren eta begirune instituzionalaren foru-balioen antitesia zen erregimen bat legitimatzeko.

III

Arabako Batzar Nagusiek probintziaren aita eta ohorezko diputatu nagusi tituluak indargabetzeko eskumenari dagokionez, foru aldundiak hainbatetan adierazi du uste duela eskumen hori Arabako Batzar Nagusiei dagokiela. Adierazpen horietako azkena Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 30eko 557/2025 Erabakian jasota dago, Batzar Nagusietara foru eremuan ohoreak eta sariak berrikusteari buruzko komunikazioa igortzekoan, hain zuzen ere. Erabaki horretan ezartzen denez, "Arabako Foru Aldundiak ez du eskumenik probintziako aita titulua, ohorezko diputatu nagusiar lotua, kentzeko. Beraz, Arabako Batzar Nagusien egoitzan eztabaidatu eta erabaki behar da Francisco Francori ohore kentzea berresteari buruzko erabakia hartzea, bai eta Emilio Molari titulua kentzea ere".

Baina foru arau hau ez da oinarritzen soilik ganbera honek aipatutako tituluak kentzeko duen eskumenean; erantzuna ematen dio, gainera, memoria demokratikoaren arloan indarrean dagoen ordenamendu juridikotik eratorritako eta bete beharreko agindu bati.

Lehenik eta behin, Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren irailaren 28ko 9/2023 Legeak, bere 31. artikuluan 2. puntuan honako hau ezartzen du: "Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek, beren eskumenak erabiliz, memoria historikoaren aurkako elementuak kentzeko behar diren neurriak hartuko dituzte".

Bigarrenik, 20/2022 Legeak, Memoria Demokratikoari buruzkoak, bere 40. artikuluan, honakoa agintzen die administrazio publikoei: "Administrazio publikoek, beren eskumenak betetz eta dagozkion prozeduren arabera, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte lege hau indarrean jarri aurretik emandako aitortzak, ohoreak eta bereizgarriak ofizioz berrikusteko edo kentzeko, baldin eta aitortza, ohore eta bereizgarri horiek nabarmenki bateraezinak badira balio demokratikoekin eta oinarritzko eskubide eta askatasunekin, baldin eta altxamendu militarra, gerra edo diktadura goraiatzeko edo goستن badituzte, edo baldin eta diktadura frankistaren errepresio-aparatuan parte hartu izanaren ondorioz eman baziren".

Beraz, foru arau honen bidez "probintziaren aita" eta "ohorezko diputatu nagusia" tituluak errebokatuta, indarrean dauden legeak bete egiten dira, legeok debekatu egiten baitute askatasunak urratu izanarekin lotutako merituengatik emandako ohoreek hala irautea.

IV

Arlo honetako aurrekari parlamentarioei dagokienez, 1979ko Autonomia Estatutuan ainguratutako foru-erakunde demokratikoak leheneratu ondoren, ekimen batzuk egin izan dira aztergai ditugun izendapenak berrikusteko. Ondorioz, nahitaezkoa da izendapen horiek berrikusteko eta, hala badagokio, errebokatze abiatutako ahaleginak burutzea, memoria demokratikoaren eta egungo erakunde duintasunaren mesedetan.

Aurretiaz Arabako Batzar Nagusietan eztabaidatu diren ekimenen errebaso kronologiko labur bat eginez, ikusten dugu lehen ekimena azaroaren 10eko 26/1999 Mozioa dela, Gerra Zibila bukatu ondorengo 60. urteurrenari buruzkoa. Bertan, honako hau eskatzen zitzaion Arabako Foru Aldundiari: "Gerrako diputazioak 1936ko azaroaren 12an eta diputazio probintzialak 1939ko apirilaren 4an hartutako erabaki eta adierazpenak, alegia, Francisco Franco Bahamonde probintziaren aita izendatzen zutenak bertan behera utzi eta, beraz, ohore hori ken diezaiotela".

Hurrengo, 2000ko maiatzean izapidetutako foru-arau proposamena izan zen; bertan, Arabako Foru Aldundiari eskatzen zitzaion erabaki bat har zezala bere Gobernu Kontseiluan, Francisco Franco Bahamonde Probintziaren Aita izendatzen zuten 1936ko azaroaren 12ko eta 1939ko apirilaren 5eko erabakiak eta deklarazioak baliogabetzeko. Ez zuen aurrera egin proposamenak, baina interesgarria da Arabako Foru Aldundiak orduan plazaratutako iritzia; izan ere, probintziaren aitaren berariazko titulua emateko eskumena nori zegokion jaso zuen: hau da, titulu hori ematea Batzar Nagusiei dagokie, hain zuzen ere ohorezko diputatu nagusiari lotutako titulua baita.

Ekimen horietako beste bat azaroaren 8ko 28/2000 Mozioa da. Mozio horretan, Arabako Batzar Nagusiek Diputazioak 1936ko azaroaren 12an eta 1939ko apirilaren 5ean Francisco Franco Bahamonde probintziaren aita izendatzeko hartutako erabakiak eta adierazpenak baliogabetea erabaki zuten. Mozio-izaera duenez, Batzar Nagusien emaitza horrek izan zituen eta baditu ondorio batzuk; hau da, Arabako parlamentuak gai zehatz horri buruz emandako deliberazio eta adierazpen argi eta garbi bat da, baina ez du behar adinako ondorio juridikorik, ostera, izendapen horiek eraginkortasunez baliogabetzeko.

Ekimen horietatik berriena 86/2025 Mozioa da, Arabako Batzar Nagusi hauetan 2025eko azaroaren 3an onetsi zena, Arabako Foru Aldundiak Francisco Franco diktadoreari eta Emilio Mola militar kolpistari emandako ohorezko izendapenak indargabetezkoa. Mozioen ondorioekin bat etorrira, edukian adierazten da Arabako Batzar Nagusiek borondate irmoa dutela Francisco Franco diktadoreari eta Emilio Mola militar kolpistari titulu edo ohorezko sari horiek kentzeko, eta konpromisoa hartzen dute horiek kentzearen ondorio juridikoak bermatuko dituen ekimen bat aurkezteko.

Foru arau honek, hortaz, duela urte batzuk hasitako bidea burutu nahi du, eta eraginkortasun juridiko osoa eman nahi dio ohorezko titulu horiek errebokatzeari, eta, horretarako, Batzar Nagusiek, erakunde eskuduna diren aldetik eta haien ahalmen araugilea baliatuz, foru arau bat onartuko dute.

V

Foru arau honek lau artikulua eta azken xedapen bat ditu, tituluak errebokatze eraginkortasun osoa bermatzeko idatziak.

Horrela, 1. artikulua arauaren xedea definitzen du, hau da, emandako tituluak eta ohoreak formalki errebokatzea. Bestetik, 2. eta 3. artikuluek, hurrenez hurren, Francisco Franco Bahamonderi eta Emilio Mola Vidalari emandako sariak berariaz deuseztatzen dituzte, indarrrik gabe geratzen diren erabaki historikoak identifikatuz. Hurrengo artikulua, 4.ak, agintzen du eguneratu daitezela Foru Aldundiaren ohore eta sarien erregistroak, erregistro-liburuak edo artxiboak, tituluen errebokazioaren eraginkortasun administratiboa ziurtatzeko. Azkenik, azken xedapen bakarrak ezartzen du araua Arabako ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko dela indarrean, kontuan izanik haren urgentzia eta kaltea erreparatzeko legezko agindua dagoela.

1. artikulua Xedea

Foru arau honen xedea da formalki eta behin betiko errebokatzea eta indarrrik gabe uztea Francisco Franco Bahamonderi emandako "probintziaren aita" eta "ohorezko diputatu nagusia" ohorezko izendapenak, bai eta errebokatzea eta indarrrik gabe uztea Emilio Mola Vidalari emandako "probintziaren aita" ohorezko izendapena ere.

2. artikulua. Francisco Franco Bahamonderen izendapenak errebokatzea

Errebokatu egiten dira eta inolako ondoriorik gabe utzi Francisco Franco Bahamonderi emandako "Probintziaren Aita" eta "Ohorezko Diputatu Nagusia" ohorezko izendapenak. Izendapenok 1936ko azaroaren 12an egin ziren, 1939ko apirilaren 5ean berretsi, eta 1944ko apirilaren 28an aldarrikatu.

3. artikulua. Emilio Mola Vidalen izendapena errebokatzea

Errebokatu egiten da eta inolako ondoriorik gabe utzi Emilio Mola Vidali emandako “probin-tziaren aita” izendapena, zeina 1936ko azaroaren 12an egin baitzen.

4. artikulua. Idatzoharra eta publizitatea

Errebokazio honen berariazko idatzoharra egingo da aipaturiko izendapen horiek jasotzen dituzten foru aldundiaren erregistro, ohore eta sarien liburu edo artxibo guztietan, eta erre-bokazioa ahalik eta publizitate instituzional handienarekin jasoko da.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 11

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA